

Emakume Aske eta
Borrokalariaiak

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista



Martxoak 8

HISTORIA

EGIN DUGU BERRIRO



Martxoak 8

Historia egin dugu berriro!



Zaila zirudien iazko Martxoaren 8a gainditzea, baina egin dugu! Milioika emakume langile eta gaztek Euskal Herriko zein Estatu mailako borroka sozial eta politikoen historiaren orrialdeetan letra larriz idatziko den greba orokorrean aurrerapauso bat eman dugu, gure milaka eta milaka kide gizonekin batera.

Zantzu asko zeuden pentsatzeko leherketa handia izango zela egun horretan, besteak beste, Pedro Sanchezen gobernuak erretolika "feminista" eduki arren zapalkuntzak eta indarkeriak errealitate izaten jarraitzen baitute; justizia patriarkalaren aurkako amorru bilakatu zen, PP, Cs eta Voxek osatzen duten bloke atzerako eta neofrankistaren adierazpen eta protokolozko hauspotuta.

Hainbestekoa izan zen presio soziala ezizen CCOOK eta UGTk ezin izan baitzuten azken bi urteotan aplikatutako bake sozialeko dinamika inposatu. Klase arteko borroka eta emakume langilearen mugimenduak behartu zituzten deituta zuten bi orduko deialdia 24 orduko greba orokorrera luzatzea, klaseko beste sindikatu batzuek egin zuten bezala (CGT, Cobas, CNT, CIG, LAB, ELA...). Goizeko lehen orduetatik aurrera, telekomunikabideek, beste aukerarik ez eta, 7 milioi langilek parte hartu zuten grebak izandako arrakastaren berri eman behar izan zuten.

Gazteria lehen lerroan

Borroka egun hartan gazteek jokatu zuten papera oso garrantzitsua izan da. Bi milioi eta erdi gaztek babestu genuen Ikasle Sindikatuak eta Emakume Aske eta Borrokalariak deitutako greba orokorra, eta 400.000 ikasle atera ginen kale eta plazetara eguerdiko 12etan, 40 hiri baino gehiagotan antolatuta genituen manifestazioetan.

Bartzelonan 130.000 ikaslek osatutako giza uholde batekin hasi genuen martxa Plaza Universitat-etik abiatuta erdialdera, eta 6.000 inguru manifestatu ginen Tarragonan. Madrilen 120.000 ikaslek Puerta del Sol hartu eta Gran Via kolapsatu genuen Justizia Ministeriora. Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean mobilizazioa ikaragarria izan zen, milaka eta milaka pertsona elkartzu ginen, eta baita Valentzian ere, bertan 30.000 gaztek bete genituen hiriko kale nagusiak. Ikasle manifestazio bete ziren bazter guztiak: milaka eta milaka ikasle atera ginen kalera Sevillan, Malagan, Cadizen,

Cordoban, Granadan, Almerian, Vigon, Ferrolen, etab. Oviedon, Xixonen eta Asturiasko beste zenbait lekutan 7.000 ikasle, milaka eta milaka Zaragozan eta Balearretan, 3.000 Guadalajaran, beste milaka ikasle Gaztela Mantxan eta Salamankan eta Gaztela Leongo hainbat hiritan, Extremaduran, Murtzian, etab.

Manifestazio guztietan oihukatua zen: Gure buruak bizirik nahi ditugu, aske eta borrokalari! Aski da, justizia patriarkalari ez! La Manada sistema bera da! Gora emakume langileen borroka.

Milioika pertsona arratsaldean

Hori guztia arratsaldean gertatuko zenaren atarikoak besterik ez zen izan. Autobusak, metroak, trenak eta auzo guztietako kaleak morez jantzita zeuden, etxean egin-dako kartel eta pankartez beteak, aurpegi margotutako borrokarako gogoa eta indarra. Bost milioi emakume langile eta gazte, gure kide gizonekin batera, atera ginen kalera. Madril eta Bartzelona bete genituen milioi bat pertsona baino gehiagorekin, eta milaka eta milaka pertsona batu ginen Valentzian, Bilbon, Sevillan, Granadan, Malagan, Gasteizen, A Coruñan, Xixonen, Valladoliden eta beste hainbat hiritan.

Egun historiko horrek argi utzi du nor diren borroka honetako benetako protagonistak. Langile klaseko emakume eta gazteok lortu genuen greba arrakastatsua izan zedin, gu geu baikara sistemaren, prekaritatearen, soldata baxuen, langabezia masiboaren eta etxe kaleratzearen zapalkuntza jasaten dugunak eta guk jasaten ditugu baita ere bortxaketak, feminizidioak eta tratu txarrak.

Klaseko feminismoa, iraultzailea eta antikapitalista

Martxoaren 8ak agerian utzi du zein den altxamendu honen bihotzaren benetako taupada. Ez dira Inés Arrimadas eta bere "feminismo liberala", ezta PPKo emakumezko diputatuak ere. Horiek, Albert Rivera edo Pablo Casadorekin batera, kolpatzen gaituzten murrizketen eta austeritatearen arduradunak dira, eta ez dute inolako erreparorik eduki Vox ultraeskuindarrarekin aliatzeko. ADN frankista berbera dute eta zapalkuntza kapitalis-

ta jasaten dugun emakumeen etsai deklaratuak dira!

Defendatzen dugun feminismoa ez datza tokatzen denean soinean lazo morea eramatean. Historiako gobernuak feminismoa dela dioen Pedro Sánchezen gobernuak praktikan ez du ezer egin jasaten dugun zapalkuntzarekin amaitzeko. Horiek ere sistema kapitalista eta bere instituzioak legitimatzen dituzte, irudi gizatiarra ematen saiatu arren.

Aurtengo martxoaren 8ko greba feministak gure indar ikaragarria erakustez gain, milioika langile eta gazteren artean gertatzen ari den erradikalizazio prozesua eta ezkerreko biraketa adierazten du. Altxamendu masibo hori, Euskal Herriko, estatu mailako eta mundu mailako klase arteko borrokan mugarria izan da. Are gehiago. Jomugan ezarri du benetan lotzen gaituzten kateekin amaitu nahi badugu, arazoaren erroarekin amaitu behar dela, hau da, kapitalismoarekin. Soilik gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatuz lortuko dugu aske bizitzea eta klase, genero edo arraza zapalkuntza ororekin amaitzea.



Bat egin Aske eta Borrokalariekin!

Eraiki dezagun batera feminismo iraultzaile eta antikapitalista

Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!

• Zigor eredugarriak emakumeen kontrako bortxaketak eta eraso fisiko edo psikologikoen arduradunei. Erasotzaileen zigorgabetasunaren alde egiten duten polizien eta epaileen berehalako kaleratzea.

• Baliabideak eta aterpetxeak tratu txarrak pairatu dituzten emakumeentzat. Lan duina edo mugagabeko langabezia prestazio baten alde. Etxebizitza duinak tratu txarren biktimizatzen eta haien seme-alabentzat.

Etxeko lanen kateak apurtu ditzagun! Lan bera, soldata bera!

• Lan erreforma eta murrizketa sozialak bertan behera utzi. Denontzako soldata duinak. 1.200 euroko gutxieneko soldata. Zigor eredugarriak ama izategatik diskriminatzen duten enpresari.

• 6 hilabeteko amatasun-baimena gurasoentzako, soldata osoarekin.

• Haur eskola duinak, publikoak eta doakoak. Garbitegi, jantoki, etxe-ko garbiketa zerbitzu publikoak eta doakoak.

• Mendekotasunerako laguntza publikoaren igoera mardula.

Gure gorputza, gure erabakia!

• Heziketa sexuala inklusiboa, ebaluagarria eta derrigorrezkoa ikastetxe guztietan, garena izan ahal gaituzten, edozein dela ere gure generoa, sexu orientazioa edo nortasuna. Aski da, mezu matxista eta homofoborik ez! Erljioa kanpora ikasgeletatik!

• Abortu libre, doako eta seguruaren alde. Familia planifikazio zerbitzu publikoak eta kalitatezkoak. Doako antisorgailuak osasun etxetan eta farmazietan.

• Prostituzioa abolitu eta haren kontura aberasten diren botere enpresarial eta politikoko borrokatu, zapalketa matxistaren erarik zitalena baita. Haurdunaldi subrogatuaren eta horren inguruko arautzearen aurka, gure eskubideen defentsaren mozorropean, gure gorputzaren salmenta eta merkantilizazioa ahalbidetzen duelako.



▶ AZALEAN HASTEN DA

Gauza bera esan daiteke "alokairuzko sabelak" izena eman dieten ugaltze granjen inguruan. Emakume behartsuak baliabide ekonomikoak dituztenen legezko biktima gisa kokatu nahi dituzte. Hori egin nahi dute egunero haurren aurkako indarkeria eta bazterketa soziala milioika haurrek jasaten duten bitartean.

Berdintasuna eta askatasuna gizartea eraldatuz soilik lortuko dugu

Mugimendu feministaren barnean ahots batzuek planteatzen dute gure borroka izatera transbertsala duela, emakume guztiok, berdin dio zein klase sozialetakoak diren, helburu berbera dugula. Diskurtso horrek jasaten dugun zapalkuntza genero auzi huts batera murriztu nahi du. Baina errealitatean, Villacis, Arrimadas, Ana Patricia Botín eta Angela Merkel bezalako emakumeek ere ardura zuzena dute sistema kapitalista, patriarkatua eta klaseko zapalkuntza ezartzen eta, beraz, jasaten dugun indarkeria matxista inposatzen. Bankueta eta multinazional handietako administrazio kontseiluetan erabakiak hartzen dituztenen edo legeak egiten dituztenen, klase dominatzaileen osotasunaren interesak defendatzeko egiten dute. Berdin dio emakumeak izan ala ez. Oron gainetik sistema eta politika atzerakoiak defendatzen dituzte, gehiengoaren aurka, izan gizonetako edo emakume.

"Feminismo liberal" honek ez du inolako arazorik PPren edo Voxen matxismo frankistarekin aliatzeko inolako arazorik, gure eskubideak erasotzeko, boteretsuen pribilegioak defendatzeko, eta bortxatzaileak babesten dituen justizia patriarkala justifikatzeko.

M8ko greba historikoan oso mezu argia bidali genien Colonen hirukoteari: Ez zarete pasako! Apirilaren 28 honetan hauteskontzietan garaituko ditugu irmotasun berberaz. Baina ez da nahikoa bozka ematea. Gizartea eraldatzeko antolatzean dago gakoa, benetako askapena eta berdintasuna lortzeko, sistemak asimila edo etxekotu ezin dezakeen mugimendu feminista borrokalari altxatuta.

PP, Cs eta Voxen bloke erreakzionarioa GARAITU BEHAR DA



Martxoaren 8ko greba orokor feminista baino egun batzuk lehenago, Ciudadanos (Cs) ekitaldi publiko bat egin zuen eta bertan "feminismo liberala" defendatzeko dekalogo bat aurkeztu zuen. Gehiagotan ere saiatu da Albert Riveraren eta Ines Arrimadasen alderdia bere burua mugimendu feministaren zatitzat aurkezten, aberatsen alde egiten duen politika neoliberala zuzitzeko.

Aberatsentzako pribilegioak

Sistemaren bozeramaile leialak direnez, Arrimadasen eta Villacisen feminismoa interes kapitalistak dauden tokian hasten da eta oligarkia ekonomikoaren poltsikoetan amaitu. Aurkeztu duten dekalogoak bi proposamen nagusi ditu. Ez dago inolako zalantzarik.

Lehenak planteatzen du enpresa handietako administrazio kontseiluetan emakume "arrakastatsuak" egotea galarazten duten oztopo "legalak" ezabatzea. Ez dute ezer esaten, ordea, amatasunagatik kaleratzea errazten duen lan erreforma indargabetzeaz, pentsioak eta emakume langilearen lan baldintzak hobetzeaz, ezta ere zaintzara eta etxeko lanetara kondenatzen gaituzten langabeziarekin, prekarietatearekin eta pribatizazioekin amaitzeaz.

Kasualitatea ote? Ez da oso bizkorra izan behar ohartzeko Arrimadas eta bere lagunak klase dominatzailearen interesak defendatzen dituztela, eta eliteko emakumeei atxikitako "eskubideak" sistema honek zapaltzen dituen emakumeen oinarriko aspirazioak izango balira bezala aurkeztu nahi dituztela. Beren "feminismo liberala" koartada bat besterik

ez da. Emakumeen gutxiengo bat beren kide gizonezkoen botere posizioetara igo ahal izatea planteatzen dute, herritarren gehiengoaren lan eta bizi baldintzak pobretzearen kontura, izan gizon, emakume, haur edo jubilatatu.

Sexu esklabotza eta esplotazioa pobreentzat

Beren dekalogo "feministaren" beste zutabe bat prostituzioa eta alokairuzko sabelak erregulatzea da, "norbanakoaren askatasunaren" izenean eta "paternalismoaren aurka". Kapitalismoaren apologisten moduan, Villacis eta Arrimadasek "askatasunaz" hitz egiten digute, baina ez dugu askatasunaz erabaki pobretzeara, soldata baxuetara edo langabeziara kondenatzen gaituen gizarte batean bizi irauteko borrokatzea.

Egunero 5 milioi euro mugitzen dituzten 1.700 burdel baino gehiagotan, 400 eta 600 mila emakume inguru daude harrapaturik esklabu sexual gisa, gehienak pobreak eta migratzaileak. Orain, beste hainbat herrialdetan bezala, negozio ikaragarri horren nagusi den lobby proxenetak kanpaina indartsua abiatu du muturreko indarkeria matxista hau erregulatzeke. Eta horretan laguntzen diete botere enpresariak, irabaziak bertan zuzitzen dituzten banku handiek, poliziak, justiziak eta hainbat komunikabidek, eta noski, neoliberalismoaren bozeramaile diren Ines Arrimadas eta Albert Riverak.

3. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU ▶

ELDIRA PASAKO



Martxoaren 8ko
HUELVA
GENE
ESTUDIA
CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO
LA JUSTICIA PATRIARCAL Y LA OBLIVIÓN

SOMOS NOTICIA PERO NO PARAREMOS HASTA SER HISTORIA

EL LLENI PRINCESA

Ikasle Sindikatua
EZKER IRAULTZAILEA

633 133 818
askeetaborrokalaria@gmail.com
www.libresycombativas.net

